

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10958 *9/2021 Legea, uztailaren 1ekoa, Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazional izendatzekoa.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

Espainiako Parke Nazionalen Sarea parke nazional izendatutako guneei osatzen dute, eta horiek araubide juridiko bati lotuta daude, etorkizuneko belaunaldientzat ondare bikain bat kontserbatzea bermatzeko, zeina Espainiako sistema natural nagusien lagin adierazgarri batek osatuko baitu.

Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazional izendatzea Estatuko Administrazio Orokorrak eta Andaluziako Autonomia Erkidegoko Administrazioak natura- eta kultura-balio bereziak dituen lurralde bati ahalik eta babes-mailarik handiena emateko duten borondatearen ondorioz sortu da. Parke nazional deklaratzeko beharrak eta eraginkortasunak gune hori kontserbatzean eta Parke Nazionalen Sareari egingo dion ekarpenean Estatuak duen interes orokorra du oinarri.

Parke nazional berriak 22.979,76 hektareako azalera du, eta Andaluziako Autonomia Erkidegoan dago, oso-osorik, Malagako probintzian, Mendikate Betikoaren mendebaldeko muturrean. Parke nazional izendatzeak plangintza-prozesu luze bati ematen dio amaiera, natura-, paisaia- eta kultura-aberastasun berezi bat eta historikoki balio horiek osatzen lagundu duten erabilera eta jarduerak kontserbatzea bermatzeko.

Egindako ikerketa zientifiko ugariak bermatzen dute zehatz-mehatz betetzen direla parke nazional izendatzeko naturagune batek bete behar dituen adierazgarritasunaren, naturaltasunaren, azaleko jarraitutasunaren, giza esku-hartze eskasaren eta etorkizuneko bideragarritasunaren baldintzak, Parke Nazionalen abenduaren 3ko 30/2014 Legean jasotako zehaztapenen arabera.

Sierra de las Nieves Mendilerroan dauden balio naturalak kontserbatzeko kezka Edmond Boissierren bisitaren ondoren sortu zen, 1838an izei espainiarra espezie berri gisa deskribatu ondoren. Orduetik aurrera hasi ziren mendilerro horiek eta bertako basoak kontserbatzeko lehen deiak, eta hala, XIX. mendeko azken hamarkadetan eta XX. mendeko lehen hamarkadetan, haiek babesteko ekimenak egin ziren Gerra Zibilera arte. Gerraostean, landa-eremuetako presio demografikoa eta tokiko baliabideen ustiapen intentsiboa areagotu ziren, eta, ondorioz, baso-paisaiak aldatu ziren. 1945ean Estatuak Rondako Abalbideen izei espainiarraren izeidiak erosi zituen; ondoren, Rondako Mendilerroa Ehiza Barruti Nazionala sortu zen, eta, geroago, Andaluziako Ehiza Erreserba. Prozesua une erabakigarria iritsi zen 1989an, Sierra de las Nieves Mendilerroa parke natural izendatu baitzuten, eta, ondoren, Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko lehen Plana onetsi baitziren. Tokiko agintarien eta inguruko eragile ekonomikoen ekimenez, UNESCOk Sierra de las Nieves Mendilerroa Biosferaren Erreserba izendatu zuen 1995ean. Erreserbak parke naturalak baino azalera askoz handiagoa hartzen zuen, eta 2006an Mediterraneoko Biosfera Interkontinentalaren Erreserban integratu zen. Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Naturaleko Zuzendaritza Batzordeak eskatuta, parke nazional izendatzeko proiektu formala ekarri zuten lanei ekin zitzaizkien. Prozesuak Sierra de las Nieves Mendilerroaren eremuko Natura Baliabideak

Antolatzeko Plana egitea aurreikusten zuen; horretan, lurralde zabala hartzen zen, eta bertan hainbat babes-figura biltzen ziren. Planean, orain deklaratzeko den parke nazionalaren lurralde-muga zehatzak ezarri ziren.

Aurrekari horietan oinarrituta, Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Pazonala izendatzeko hasierako proposamena egin zen, eta Ministro Kontseiluak eta Andaluziako Juntako Gobernu Kontseiluak onetsi zuten. Onetsi ondoren, jendaurrean jarri zen, eta eragindako ministerio-departamentuen eta udalerrien txostenak bildu ziren. Jasotako txosten eta gogoetekin, beste proposamen bat egin zen, eta Ministro Kontseiluak eta Andaluziako Juntako Gobernu Kontseiluak onetsi zuten. Azkenik, Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluak azken proposamen horren aldeko txostena egin zuen.

Lege honen xedea Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionala izendatzea da, Estatuari ingurumen arloan oinarritzeko legeria ezartzeko eskumena ematen dion Espainiako Konstituzioaren 149.1.23 artikuluari eta Parke Nazionalen abenduaren 3ko 30/2014 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Azken artikuluko horrek ezartzen du izendatze hori Gorte Nagusien lege bidez egin beharko dela.

Parke nazionalaren eremu fisikoak Sierra de las Nieves Mendilerroa eta Sierra Realeko goragune nagusiak hartzen ditu. Kokapen geografikoak, egitura geologiko eta orografiko bereziarekin eta substratuaren konplexutasunarekin batera, dibertsitate ekologiko handia ekarri du, eta horren ondorioz, nahiko lurralde txikian habitat, espezie eta elementu geologiko ugari dago. Hala, Parke Nazionalen abenduaren 3ko 30/2014 Legean jasotako 27 lurreko sistema naturaletatik gutxienez 10 daude parke nazionalen.

Horietatik, «Izeidiak eta izei espainiarraren izeidiak» izeneko sistema naturala nabarmentzen da. Sistema horrek sarean duen ordezkaritza kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzen du, izei espainiarraren izeidiak hartzen baititu barne. Parke nazional berriak espezie hori dagoen azalera osoaren erdia baino gehiago hartzen du. Masa horiek penintsulan kontserbatzen diren izei espainiarraren izeidien formaziorik zabalenak dira. Izendatzearekin batera, beste formazio interesgarri batzuk ere gehitu zaizkio Parke Nazionalen Sareari, hala nola «Malagako mendebaldeko sektoreko pinudi beltz peridotitikoak», «Barneko sabina feniziarren basoak», «Cadizko artelatzen-baso hezeak» eta «Larreko ezkaidiak eta kuxin formako sastraka arantzadunak».

Parke Nazionalen Legea garatzen zuen Errege Dekretuaren zioen azalpenak, 1917ko otsailaren 24an Madrilgo Gazetako 55. zenbakian argitaratutakoak, jada aipatzen zuen Rondako izei espainiarraren izeidia Espainiako botanikaren arloan nabarmentzen zen gune natural gisa.

Testuinguru geologikoan, areagotu egiten da «Iberiar mendigunearen eta mendikate alpetarren erliebe-formak eta elementu geologiko bereziak» sistema naturalaren ordezkaritza; sistema horretan, mendikate alpetar iberiarretan azaleratzen diren goimantuko harri bakarrak sartzen dira: peridotitak. Halaber, «Jatorri karstikoko sistema natural berezien» ordezkaritza handitu egin da, goi-mendiarekin trantsizioan dagoen karst mediterraneoaren Espainiako adibide onenetako batekin.

Lurraldearen berezitasun ekologikoen isla da flora-espezieen aniztasuna, haietako batzuk galtzeko arriskuan daudenak, hala nola izei espainiarra eta tabako zakarra (*Atropa baetica*).

Bereziki garrantzitsua da hegaztien taldea: aipatzekoa da, adibidez, buztangorri argia (*Phoenicurus phoenicurus*), mehatxatuta baitago, eta izei espainiarraren izeidi helduetan espeziearentzat ugaltze-gune garrantzitsuenetako bat baitu Iberiar Penintsularen hegoaldean. Ugaztunen artean, arreta berezia merezi du basahuntz piriniotarren populazioak, baita kiropteroen taldeak ere; azken hori ondo ordezkatuta dago, bereziki, babestutako lurraldearen zati handi baten izaera karstikoaren ondorioz. Narrastien artean, sugandila andaluziarra (*Podarcis vaucheri*), eskinko hiruhatza (*Chalcides striatus*) eta eskinko bostatza (*Chalcides bedriagai*) nabarmentzen dira. Anfibioen taldean, *Salamandra salamandra longirostris* arrabioaren azpiespezia Cadiz eta Malaga probintzietan baino ez dago. Guadaiza ibaian, Malagako katxoa (*Squalius malacitanus*) aurki daiteke, Guadaiza ibaian dagoen endemismoa; ibai-kabuxak (*Salaria fluviatilis*) Verde eta Guadaiza ibaietan ditu Andaluziako bere azken barrutietako bi. Mehatxatutako ornogabeen artean, arreta

berezia merezi dute ibai-karramarro autoktonoak (*Austropotamobius pallipes*) eta *Macromia splendens* eta *Oxygastra curtisii* sorgin-orratz espezie bakanez, bereziki ondo kontserbatutako ibai-ibilguez lotutakoak.

Hainbat zibilizazio igaro eta finkatu izanaren ondorioz, giza jarduerak lurraldea modelatu du, kultura bakoitzaren premien arabera, eta ondare historiko eta kultural, material (gazteluak, dorreak, kortijoak, nekropoliak eta abar) eta ez-material (ohiturak, gastronomia, folklorea, artisautza eta abar), aberatsa sortu du.

Parke nazional berriaren izendapenarekin lortu beharreko helburuak ezartzen ditu legeak, haren lurralde-eremua eta haren babes-eremu periferikoa mugatzen ditu, eta irizpideak ezartzen ditu etorkizunean egin daitezkeen handitzeetarako. Halaber, babes-araubide juridikoa zehazten du, indarrean dagoen beste edozein araudi sektorialen gainetik dagoena, baita zer neurri eta konpentsazio aplikatu behar diren ere bateraezintzat jotzen diren jarduerak ezabatuz gero.

Eragin sozioekonomikoko eremu bat ezartzen da, parke nazionala kokatuta dagoen udalerriek eta haren babes-eremu periferikoari dagokion lurraldeak osatua. Parke Nazionalen abenduaren 3ko 30/2014 Legearen 31. artikuluan jasotako salbuespen-egoera kontuan hartuta, eragin sozioekonomikoaren eremuan sartzen dira babes-eremu periferikoko udalerriak, kontuan hartuta kontserbazioaren, ibilbide historikoaren eta garapen sozioekonomikoko dinamika komunaren arloan duten motibazio eta sentsibilitate antzekoa. Parkearen barruan dauden toki-entitateek, enpresa-erakundeek eta pertsona fisiko eta juridikoek garapen sozioekonomiko jasangarria sustatzeko zenbait neurri baliatu ahal izango dituzte, betiere parke nazionalerako ezarritako helburuak betetzearekin bateragarria bada garapen hori. Andaluziako Autonomia Erkidegoak du gune babestuaren kudeaketaren ardura, eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin finantza-lankidetzarako tresnak ezarri ahal izango ditu, beren eskumenen esparruan. Lege hau indarrean jarri eta gehienez hiru urteko epean, parke nazionalak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana izan beharko du; plan hori egitean gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bermatu beharko dira, eta Parke Nazionalaren Patronatuak, sozietatearen partaidetza-organoak, horri buruzko txostena emango du.

Parke nazionalaren barruko lursailen jabeek eta eskubideen beste titular batzuek parkearen kontserbazioan parte hartuko dute, eta eragindako udalerrien, sektoreen eta kolektiboen integrazioa lehenetsiko da kudeaketan. Parke nazionalaren barruan bizi diren tokiko biztanleei lagunduko zaie, bereziki erabilera publikoarekin eta landa-turismoko jarduerekin lotutako jarduera ekonomiko eta komertzialen bidez.

Azkenik, esan beharra dago lege honek bete egiten dituela Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako erregulazio onaren printzipioak. Premia- eta efizientzia-printzipioak betetzen ditu; izan ere, parke nazional berri bat sortu da hura onestean, eta Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen da haren kontserbazioa, eta hierarkikoki egokia den arau mota erabili da horretarako: legea, hain zuzen ere. Proporzionaltasun-printzipioa betetzen da, arauak jasotzen dituen eskubideak murrizteko neurriak egokiak eta neurrikoak baitira naturagune hori babesteko. Halaber, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak errespetatzen dira, haren edukia koherentea baita gainerako ordenamendu juridikoarekin; alde interesdunek, lehenik eta behin, parke nazionala izendatzeko aurretiazko izapidetzean parte hartu dute, eta, bigarrenik, informazio publikoaren ondorengo izapidean; ez da administrazio-karga berririk sortzen, eta daudenak mantentzen dira.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionala izendatzeko Legea aurkezten da. Legea Ingurumeneko Aholku Batzordeak kontsultatu du, Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluak txostena egin du, eta jendaurrean jarri da, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.6 artikuluan aurreikusitakoa betez.

1. artikulua. *Xedea.*

1. Sierra de las Nieves Mendilerroa parke nazional izendatzen da. Parkea kontserbatzea Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen da, eta Parke Nazionalen Sarean sartuko da, gai horri buruzko oinarrizko legerian aurreikusitakoaren arabera.

2. Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionala izendatzeak eta Parke Nazionalen Sarean sartzeak helburu hauek ditu:

a) Parke Nazionalen Sareari zenbait sistema natural esanguratsuren lagin adierazgarri bat ematea, besteak beste, izei espainiarraren izeidiak, erkameztiak, pinudiak, sabinadiak, goi-mendiko sastrakak eta larreak, artadiak, artelatzen-basoak, ur-ibilguak eta ibaiertzeko basoak, ihitokiak, erliebeak eta elementu geologiko bereziak, hala nola peridotitak eta jatorri karstikoko sistema naturalak.

b) Bertako balio naturalen eta paisaien osotasuna babestea, haien kontserbazioa ziurtatzea eta, hala badagokio, biodibertsitatea berreskuratzea, bereziki barruan dauden habitat eta espezieena, haien egitura, funtzioa eta dinamika zehazten duten prozesu biotiko eta abiotikoak eta haien oreka mantentzea bermatuko duten irizpideekin bat.

c) Geodibertsitatearen eta ondare geologikoaren kontserbazioa bermatzea.

d) Naturagunearen errealitate fisikoari, biologikoari, ekologikoari, kulturalari eta sozioekonomikoari buruzko ezagutzan aurrera egiten eta hura zabaltzen laguntzea.

e) Aldaketa globaleko prozesuen jarraipena egiten laguntzea, behar den informazioa lortuz eta kudeaketa moldagarriko mekanismoak diseinatuz.

f) Gunearen balio naturalekin lotutako ondare kulturala —materiala eta inmateriala— eta etnografikoa kontserbatzen laguntzea.

g) Parke nazionalari lurraldea ematen dioten herrien eta haren eragin sozioekonomikoko eremuan daudenen garapen jasangarria laguntzea.

h) Parke nazionalaren balioen ezagutza erraztea gizarte osoari, bai eta haren kontserbazioarekin eta erabilera eta gozamen publikoarekin bateragarria izango den moduan antolatzea ere, eta irisgarritasun unibertsala sustatzea.

i) Ezagutza hobetzea, ikerketa-jarduera eta prozesu naturalen bilakaeraren jarraipena bultzatzea, eta beraren balioen berri ematea.

j) Fluxu ekologikoak indartzea espazioaren lurralde-eremuaren barruan, bai eta eremuaren eta ingurunearen artean ere, basa-flora eta -faunako espezieen eta populazioen mugikortasun- eta barreiatze-prozesuak errazteko.

2. artikulua. *Lurralde-eremua.*

1. Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalak I. eranskinean hitzez hitz azaltzen diren mugen barruko lurralde-eremua hartzen du; guztira, 22.979,76 hektareako azalera du, Andaluziako Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

2. Parke nazionalaren mugakide diren lursailak sartu ahal izango dira parke nazionalan, antzeko ezaugarriak badituzte edo haren balioekin osagarriak badira, Parke Nazionalen abenduaren 3ko 30/2014 Legearen 6. eta 11. artikuluetan ezarritako prozeduraren eta eskatutako betekizunen arabera.

3. artikulua. *Babes-araubide juridikoa.*

1. Lege honetan ezarritako babes-araubide juridikoa lehenetsiko da parke nazionalaren lurraldearen gainean indarrean dagoen beste edozein araudi sektorialen aurrean.

2. Parke nazionalaren helburuak betetzeko, eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren esparruan, parke nazionalaren barruan dauden erabilerak haren kudeaketarekin eta kontserbazioarekin bateragarri edo bateraezin gisa sailkatuko dira; lehenengoen artean sartuko dira kudeaketarako beharrezkoak direnak. Zehazki:

a) Historikoki lurraldea osatzeko lagungarriak izanik Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean bateragarritzat eta araututzat jotzen diren erabilera eta jarduera tradizionalei eutsi egingo zaie.

b) Parke nazionalaren barruan, debekatuta egongo dira Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean bateraezintzat jotzen diren erabilerak eta jarduerak. Erabilera eta jarduerak bateraezintzat jotzeko arrazoiak izango dira sistema naturalen edo prozesu ekologikoen egonkortasuna galtzea edo arriskuan jartzea, edo haren osagai fisiko edo biologikoen osotasuna galtzea.

3. Bereziki, honako hauek jotzen dira jarduera bateraezintzat:

a) Parke nazionalaren lurraldean erabilera edo jarduera berriak gauzatzea, kontserbatu beharreko paisaiaren egungo egiturari, itxuran edo konposizioan aldaketak eragiten badituzte, salbu eta kontserbazio-arrazoiak direla-eta paisaia hobetzeko edo natura-ingurunea lehengoratzeko egin beharreko lanak badira.

b) Eraikin eta instalazio iraunkor berriak ezartzea, edozein motatakoak izanda ere, baita honako hauek ezartzea ere: linea elektrikoak, parke eolikoak, lur edo aire trafikoko instalazioak edo igogailu mekanikoak, aprobetxamendu hidrauliko edo hidroeletrikoak, energia-sareak, komunikabide-tarteak edo bideak, besteak beste. Salbuespen gisa, administrazio kudeatzaileak, Patronatuak txosten bat egin ondoren, parkea ondo kudeatzeko beharrezkoak diren instalazioak baimendu ahal izango ditu, edo ingurumena babestearekin edo interes sozialarekin lotuta behar bezala justifikatzen direnak, betiere bestelako irtenbide egokirik ez baldin badago eta prozesu naturalen osotasuna bermatzen bada.

c) Metalak eta agregakinak ustiatzea eta erauztea, edozein motatako isurketak egitea edo hondakinak botatzea, zuhaitzak merkataritza-helburuetarako ebakitzea, kirol-ehiza eta merkataritza-ehiza, kirol-arrantza eta aisialdiko arrantza eta, oro har, zonaldeko elementu natural bereziak suntsitzea, hondatzea edo eraldatzea eragin dezakeen edozein jarduera. Ez dira aurretik aipatutako debekupean sartzen parke nazionala kudeatzen duen administrazioak, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean xedatzen diren zehaztapenekin bat etorritik, populazioak kontrolatzeko, baso-masak antolatzeke edo espezie exotiko inbaditzaileak desagerrarazteko programatzen dituen jarduerak.

d) Parke nazionalari buruzko oinarriko legerian eta hura garatzen duten tresnetan —bereziki, Parke Nazionalen Sarearen Plan Zuzentzailean— debekatutako jarduera guztiak, baita Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean parkearen helburuekin bateraezintzat jotzen direnak ere.

4. Andaluziako arro mediterraneoetako plan hidrológicoek eta arlo hidraulikoetan eskumena duen administrazioak parke nazionalerako balioak mantentzeko eta helburuak lortzeko kantitate eta kalitate egokietan ziurtatuko dituzte baliabide hidrikoak.

5. Lege honen eta parke nazionalen arloari buruzko gainerako arauen xedeak betetzearren ondorearekin lotutako eskubide eta interes legitimoak mugatzen badira, horren kalte-ordaina jaso ahal izango da.

6. Parke nazionalaren barruko lursailetan ezin da egon aldaketa urbanistikorik egin dakioken lurzorurik, ez eta lurzoru urbanizaturik ere, hargatik eragotzi gabe parkearen kudeaketa bermatzeko eta helburuak hobeto betetzeko beharrezkoak diren instalazioei buruz Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak ezarritakoa. Oro har, hirigintzako planek edo arauak lege honetatik eta legea garatzeko eta aplikatzeko onesten diren plangintza-tresnetatik eratorritako mugetara egokituko dituzte beren aurreikuspenak.

4. artikulua. *Babes-eremu periferikoa.*

1. Lege honetako II. eranskinean deskribatutako mugen barruan sartzen den lurraldea Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalerako babes-eremu periferiko izendatuko da, parke nazionalerako buruzko Estatuko oinarriko legerian aurreikusitakoari jarraituz; azalera 75.119,86 hektareakoa da.

2. Babes-eremu periferiko horren araubide juridikoa Andaluziako Autonomia Erkidegoak ezartzen duena izango da, eta honako hauek aplikatuko dira: Sierra de las Nieves Mendilerroaren eremuko Natur Baliabideak Antolatzeke Plana, Sierra de las Nieves

Mendilerroa Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana, bai eta aplikatzekoak diren lurralde-plangintzako tresnetan eta naturagune babestuetan jasotako berriazko zehaztapenak ere. Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak babes-eremu periferikoaren berezko araubide juridikoa bateratu ahal izango du.

3. Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, eremu periferikoan hegaldimurrizketak ezartzeko edo eraginkorrak izateko, Defentsa eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministerioen arteko Batzordearen nahitaezko txosten loteslea beharko da; Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 6. artikuluan aurreikusita dago batzordea.

5. artikulua. *Eragin sozioekonomikoaren eremua.*

1. Parke nazionalaren eta haren babes-eremu periferikoari lurraldea ematen dioten udalerriek (lege honetako III. eranskinean zerrendatuta daude) osatzen duten espazioa Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren eragin sozioekonomikoko eremu izendatuko da, parke nazionalari buruzko Estatuko oinarritzko legerian aurreikusitakoaren arabera.

2. Parke nazionalari buruzko oinarritzko legerian zein legeria hori garatzeko Andaluziako Autonomia Erkidegoko araudietan aurreikusitako dirulaguntza, laguntza eta garapen-neurrien onuradun izan ahalko dira eragin sozioekonomikoko eremuaren barruan kokatuta dauden toki-erakundeak, enpresak eta pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta bertan jarduten duten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak ere. Horretarako, administrazio publikoek dagozkien laguntza eta lankidetzak tresnak ezarri ahal izango dituzte.

3. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta Andaluziako Juntak parke nazionalarekin bateragarria den garapen sozioekonomiko jasangarria bultzatu ahal izango dute, komenigarritzat jotzen dituzten ekintzak, planak eta programak modu koordinatuan garatuz. Horretarako, partzuergoak eratu ahal izango dituzte, baita haien arteko eta tartean dauden gainerako administrazio, erakunde eta taldeekiko hitzarmenak sinatu ere.

6. artikulua. *Onura publikoa eta interes soziala.*

Administrazio publikoek, lege honetan xedatutako helburuak lortzeko, parke nazionalaren eta babes-eremu periferikoaren barruan egin beharreko jarduerak erabilera publikokotzat eta interes sozialekotzat joko dira.

7. artikulua. *Eroslehentasun eta atzera-eskuratzea.*

Andaluziako Juntak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak gauzatu ahal izango ditu, parke nazionalaren barruan kokatutako landa-eremuko finken gaineko jabetza edo beste edozein eskubide erreal (berme-eskubideak izan ezik) sortzea, eskualdatzea edo aldatzea dakarten kostu bidezko inter vivos ekintza edo negozio juridikoei dagokienez, aipatutako eskubide errealen titular diren sozietateen kapital sozialean gehiengoa eskuratzea dakarren edozein operazio edo negozio barne. Ondorio horietarako:

a) Eskualdatzaileak modu frogagarrian jakinaraziko dizkio Andaluziako Juntari egin nahi duen eskualdatzearen prezioa eta funtsezko baldintzak. Jakinarazpen hori egiten duenetik hasita hiru hilabeteko epean, aipatutako administrazioak lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu ahal izango du, onartutako prezioa gehienez ere bi ekitaldi ekonomikoko epean ordaintzeko konpromisoa bere gain hartuz.

b) Eskualdatzearen arrazoia modu frogagarrian jakinarazi ez bada, Andaluziako Juntak atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du, urtebeteko epean, eskualdatzearen berri izan duen egunetik hasita eta lehentasunez erosteko aurreikusitako baldintza berberetan.

c) Jabetza-erregistratzaileek eta merkataritza-erregistratzaileek ez dute aipatutako ondasunen gaineko eskubideen eskualdatzerik edo eraketarik inskribatuko, artikuluko honetan adierazitako baldintzak bete direla frogatzen ez bada.

8. artikulua. *Parke nazionalaren kudeaketa.*

Andaluziako Autonomia Erkidegoak kudeatuko du Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionala, eta Parke Nazionalen Sarearen helburuekin bat etorri antolatuko du.

9. artikulua. *Araubide ekonomikoa eta lankidetzarakoa.*

1. Andaluziako Autonomia Erkidegoak bere aurrekontuen kontura ordainduko ditu parke nazionalaren ohiko kudeaketa arruntetik eratorritako gastuak.

2. Estatuko Administrazio Orokorrak eta Andaluziako Autonomia Erkidegoak finantza-lankidetzarako tresnak ezarri ahal izango dituzte, Parke Nazionalen abenduaren 3ko 30/2014 Legearen 30. artikuluan eta Parke Nazionalen Sarearen Plan Zuzentzailean jasotako koordinaziorako oinarriko jarraibideetan ezarritakoaren arabera.

10. artikulua. *Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana.*

1. Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren kudeaketaren plangintza arrunta egiteko tresna Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana da. Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planean xedatutakora egokituko da, eta hamar urteko indarraldia izango du, gutxienez. Andaluziako Autonomia Erkidegoak egin eta onetsiko du, eta aldian-aldian berrikusi beharko da. Hirigintzaren arloan eskumena duten administrazioek Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren inguruko nahitaezko txostena egingo dute, hura onetsi edo berrikusi baino lehen.

2. Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana hirigintza-plangintzaren gainetik egongo da. Zuzentzeko planetan jasotako xedapenak indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin bateraezinak direnean, organo eskudunek ofizioz berrikusiko dute azken hori.

3. Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planera egokituko da, eta informazio hau bilduko du, gutxienez:

a) Parke nazionala erabiltzeko eta antolatzeko arauak, helburuak, jarduera-lerroak eta irizpide orokorrak.

b) Parke nazionalaren eremukako banaketa, erabilera-eremu bakoitza mugatuz eta horietako bakoitzean aplikatu beharreko araudia zehaztuz, Zuzentzeko Planean ezartzen diren eremu moten arabera.

c) Parke nazionalaren helburuak lortzeko behar diren jarduketaren zehaztapena eta programazioa; besteak beste, arlo hauetan: kontserbazioa, erabilera publikoa, ikerketa eta ingurumen-hezkuntza. Jardueren programazio horrek kontuan hartu beharko ditu klima-aldaketaren ondorioz sortzen diren kontserbazio-beharrak, ingurumen-aldaketekiko bereziki sentikorrek diren ekosistema eta habitatei eragin baitiezaieke, hala nola izei espainiarraren izeidiei, haiei lotutako espezieei eta ematen dituzten zerbitzuei.

d) Planaren indarraldirako programatutako azpiegituren eta kontserbazio, ikerketa eta erabilera publikoko ekintzei dagozkien inbertsioen zenbatespen ekonomikoa.

e) Parkearen kontserbazio eta kudeaketarekin bateragarriak eta bateraezinak diren jardueren zerrenda. Bateragarrien barnean, bereizi egin beharko dira, batetik, gunea kudeatzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren jarduerak, eta, bestetik, titular eta jabeekin elkarlanean aritzeko tresnak, integratzeko, birformulatzeko edo, hala balegokio, kalte-ordaina emateko.

f) Parke nazionalan dauden landare-formazio exotikoak desagerrarazteko eta espezie inbaditzaileak errotik kentzeko irizpideak.

g) Parke nazionalan beste administrazio publiko batzuek gauzatu ditzaketen ekintzak integratu eta koordinatzeko neurriak.

h) Parke nazionaletik kanpo gauzatzen diren jarduera bateraezinei aurre egiteko prebentzio-neurriak eta hondamendi naturalak edo giza jarduerak eragindako hondamendiak aurreikusteko neurriak. Horrekin lotuta, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak autobabes-plan bat egitea aurreikusi beharko du, gerta daitezkeen arriskuak prebenitzeko eta, gertatzen badira, haiei aurre egiteko. Planean, Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren inguruan egin ohi diren jardueretatik eta klima-aldaketatik eratorritako arrisku probableenen prebentzioa jasoko da. Halaber, plana aplikatzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, eskura dauden bitartekoak eta langileek behar dituzten prestakuntza eta entrenamendua jasoko ditu. Planak babes zibileko planekin koordinatzeko mekanismoak jaso beharko ditu.

4. Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana egiteko prozeduran, nahitaezkoak izango dira interesdunei entzunaldia emateko, jendaurrean informazioa emateko eta eraginpeko administrazio publikoei kontsulta egiteko izapideak, baita Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluaren eta Patronatuaren aurretiko txostenak ere.

5. Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana urteko lan eta inbertsioen planen bidez garatuko da, bai eta Andaluziako Autonomia Erkidegoak onetsitako legerian aurreikusita dauden beste plangintza eta kudeaketarako tresna batzuen bidez ere; Patronatuak horiei buruzko txostena egingo du.

6. Obra-, lan- edo aprobetxamendu-proiekturen bat Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean edo bere berriakuspenetan agertzen ez bada, baina parke nazionalan gauzatzea beharrezkotzat jotzen bada, behar bezala justifikatu beharko da, plan horretako gidalerroak kontuan hartuz, eta Andaluziako Autonomia Erkidegoaren baimena beharko du, Patronatuak txostena egin ostean.

11. artikulua. *Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren Patronatua.*

1. Gizarteak Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalan parte hartzeko organo gisa, Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren Patronatua eratuko da, parte hartzeko beste edozein organotik bereiz.

2. Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren Patronatua Andaluziako Autonomia Erkidegoari atxikita egongo da administrazio-ondorioetarako.

3. Patronatuaren osaera, jarduteko araubidea eta bertako presidentearen izendapena erabakitzea Andaluziako Autonomia Erkidegoaren eskumena izango da. Parke nazionalaren zuzendari-kontserbatzailea Patronatuko kide izango da.

4. Patronatuaren osaeran, parekotasuna egongo da Estatuko Administrazio Orokorreko ordezkarien eta Andaluziako Autonomia Erkidegoko ordezkarien artean. Halaber, ordezkartza izango dute tokiko administrazioek, inguruko gizarte-eragileek, parke nazionalaren barruan jarduera ekonomikoak egiten dituzten eragileek, parkearen barruan dauden lursailen jabe publiko eta pribatuek eta parke nazionalarekin zerikusia duten edo lege honen helburuekin bat datozen erakunde, elkarte eta erakundeek.

5. Sierra de las Nieves Mendilerro Parke Nazionalaren Patronatuak Estatuko oinarritzko legedian xedatutako funtzioak beteko ditu, baita Andaluziako Autonomia Erkidegoak esleitutako bestelako funtzioak ere. Bereziki, honako hauek:

a) Parke nazionalari dagozkion arauak ezagutzea eta arauak betetzen direla aktiboki zaintzea.

b) Babestutako gunearen alde egokitzeak jotzen dituen jarduketa guztiak bultzatu, sustatu eta gauzatzea.

c) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planari eta horren aldaketei buruzko txostenak egitea, baita lan- eta inbertsio-planei buruzkoak ere, edo horretatik eratorritako edozein sektore-garapeni buruzkoak ere.

d) Administrazio eskudunek egingo dituzten jardueren programazioari buruzko txostena egitea.

e) Parke nazionalaren urteko aurrekontuari buruzko txostena egitea, dagokion ekitaldia baino lehen. Txostenean, burutu beharreko jarduketak, haiek beteko dituen erakundea eta haiek finantzatzeko dituen administrazioa zehaztuko dira.

f) Jardueri eta emaitzei buruzko urteko txostena onestea, eta disfuntzioak zuzentzeko edo kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak proposatzea.

g) Parke nazionalan egin nahi diren obra eta lanen proiektu zein proposamenei buruzko txostenak egitea, obra eta lan horiek ez daudenean lan- eta inbertsio-plangintzetan jasota.

h) Eragin sozioekonomikoaren eremuan egitekoak diren eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargura finantzatzeko diren dirulaguntza deialdietara aurkeztutako eskaerei buruzko txostenak egitea.

i) Parke nazionalaren inguruan garatzen diren proiektuei buruzko txostenak egitea, bertan eragin esanguratsua izango dutela edo bertako balio naturalei eragingo dietela aurreikusten bada.

j) Parke nazionalaren balizko aldaketei buruzko txostenak egitea.

k) Parke nazionalaren balioak modu ahalik eta eraginkorrean defendatzeko arauak eta jarduerak proposatzea.

l) Barne-araubideari buruzko bere erregelamendua ezartzea.

12. artikulua. *Akzio publikoa.*

Administrazio-organoen eta justizia-auzitegien aurrean lege honek eta hura garatzeko nahiz aplikatzeko xedatutakoak bete daitezzen galdatzeko akzioa publikoa izango da.

13. artikulua. *Zehapen-araubidea.*

1. Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalako arau-hauste eta zehapen araubidea Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko VI. tituluan aurreikusitakoa izango da, baita aplikagarria zaion araudi autonomikoan aurreikusitakoa ere.

2. Gainera, parke nazionalaren eremuko arau-hauste administratibo oso larritzat eta aurreko paragrafoan aipatutako zehapen-araubidearen mendekotzat joko dira honako hauek:

a) Parke nazionalaren baldintza naturalak edo haren berezko elementuak nabarmen hondatzea, okupazio, luberritze, ebaketa, erauzketa edo kutsadura zuzen edo zeharkakoaren bitartez.

b) Ehiza eta kirol- eta jolas-arrantza egitea, basa-animaliak, haien kumeak edo arrautzak kontrolik gabe jazartzea, biltzea edo harrapatzea, bai eta landareak eruztea eta ebakitzea ere, mehatxatutzat hartuta badaude, salbu eta kudeaketa-arrazoiengatik bada.

c) Parke nazionalako baldintza naturalei eustea arriskuan jar dezakeen edozein isurketa egitea.

d) Hargintzako materialak eta agregakinak ustiatzea eta eruztea.

e) Parke nazionalako ekosistemetatik kanpoko espezieak nahita askatzea edo sartzea.

3. Gainera, parke nazionalaren eremuko arau-hauste administratibo larritzat eta 1. apartatuan aipatutako zehapen-araubidearen mendekotzat joko dira honako hauek:

a) Edozein motatako azpiegitura iraunkorrak dagokion baimenik gabe eraikitzea edo birmoldatzea, adibidez: bideak, eraikinak, linea elektrikoak, lurreko edo aireko garraio-instalazioak, ereitea edo landatzea.

b) Ehiza eta kirol- eta jolas-arrantza egitea, basa-animaliak, haien kumeak edo arrautzak kontrolik gabe jazartzea, biltzea edo harrapatzea, bai eta landareak eruztea eta ebakitzea ere, salbu eta populazioak kontrolatzeko edo kudeatzeko bada.

c) Parke nazionalaren barruan motaren bateko jarduerak aurrera eramateko emandako administrazio-baimenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

- d) Parke nazionalaren barruan debekatutako merkataritza-jarduerak egitea.
- e) Publizitate-kartelak jartzea.
- f) Hondakinak edo txatarra gordetzea.
- g) Baimendu gabeko eremu edo aldietan suak piztea.
- h) Espezieen lasaitasuna asaldatzen duten edo pertsonak gogaitzen dituzten zaratak egitea.
- i) Lege honetan eta haren plangintza-tresnetan xedatutako gainerako debekuak ez betetzea.

4. Gainera, parke nazionalaren eremuko arau-hauste administratibo arintzat eta 1. apartatuan aurreikusitako zehapen-araubidearen mendekotzat joko dira honako hauek:

- a) Horretarako aurreikusita ez dauden lekuetan edo ezarritakoez bestelako baldintzetan kanpatzea.
- b) Basa-landarediko espezieak, mineralak edo fosilak baimenik gabe biltzea, parke nazionaleko baldintza naturaletan aldaketa nabarmenik eragiten ez badu.
- c) Onartu daitezkeen merkataritza-jarduerak baimenik gabe egitea.
- d) Parke nazionalaren araudiko beste edozein agindu ez betetzea.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren Patronatua eratzea.*

Lege hau indarrean jarri eta bi urteko epean, Andaluziako Autonomia Erkidegoak Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalaren Patronatua eratuko du.

Bigarren xedapen gehigarria. *Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onestea.*

Lege hau indarrean jartzen den egunetik hasita hiru urteko epean, Andaluziako Autonomia Erkidegoak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onetsiko du.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Administrazioen arteko lankidetzeta eta elkarlana.*

Sierra de las Nieves Mendilerroa Parke Nazionalak parke nazionaleri buruzko oinarritzko araudiak ezarritakoarekin bat datorren kudeaketa-maila izan dezan laguntzarren, ahalmena ematen zaio Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren bitartez, hura lortze aldera administrazio eskudunekin komenigarritzat jotzen dituen akordio, hitzarmen eta partzuergoak sinatzeko eta martxan jartzeko.

Laugarren xedapen gehigarria. *Parke nazionalean eta haren babes-eremu periferikoan jabetza publikoa handitzea.*

Administrazio publikoek parke nazionalaren eta haren babes-eremu periferikoaren barruan jabetza publikoa pixkanaka handitzen joateko neurriak har ditzakete, finkak eskuratuz, ahal dela jabeekin borondatezko akordioak eginda.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Kalte-ordainak emateko araubidea.*

Estatuko Administrazio Orokorrari egokituko zaio gaiari buruzko oinarritzko legeriaren eta Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planaren ondorioz parke nazionalean ezartzen den ondare-ondasun eta -eskubideei ezarritako mugatze ororengatiko kalte-ordainak ordaintzea. Gainerako mugaketek eragindako kalte-ordainak Andaluziako Autonomia Erkidegoak ordainduko ditu.

